

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

13 irakasle eta Nafarroako 9 ikastetxeek kalitatezko europako 18 zigilu jaso dituzte beraien eTwinning proiektuengatik

Aipamen hori lortu dute Tuteran, Iruñean, Atarrabian, Ablitasen, Fustiñanan, Castejon, Gares eta Lesakako eskolek

Osteguna, 2018.eko urriak 25

Nafarroako bederatzi ikastetxeetako 13 irakaslek [eTwinning](#) programaren baitan egindako proiektuengatik kalitatezko [18 zigilu europar](#) jaso dituzte. Zehazki, Tuterako Huertas Mayores HLHIP, Iruñeko Navarro Villoslada BHI, Atarrabiako Pedro de Atarrabia DBHI, Iruñeko Hijas de Jesus Ikastetxea, Ablitaseko San Babil HLHIP, Fustiñanako San Justo Y pastor HLHIP, Castejoneko DBHI, Garesko Seminario Padres Reparadores Ikastetxeak eta Lesakako HLHIPek jaso dituzte.

Lortutako zigiluek Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeek eta bertako irakasleek eTwinning bitartez sarean garatzen dituzten lankidetzaren proiektuetan parte hartzeko bultzada isladatzen dute. Zehazki honakoak izan dira saritu diren proiektu era irakasleak:

-Tuterako Huertas Mayores HLHIP: Marisol Montañesen [‘Rudolph is in town’](#) eta [‘Hoppy Easter’](#) eta Marisol Montañes, Daniel Serrano, Marisa Garde eta Luisa Perezen [‘eTwinning Space Explorers’](#) proiektua.

-Iruñeko Navarro Villoslada BHI: Adriana Rípodasen [‘My History is my Pride’](#) eta [‘A journey around the Mediterranean’](#) proiektuak, eta Sylvia Picalloren *Esto mola, on s’inscrit?* Proiektua.

-Atarrabiako Pedro de Atarrabia DBHI: Izaskun Jorajuriaren *Science is Fun y Challenge in Science* proiektua.

-Iruñeko Hijas de Jesús Ikastetxea: Isabel Canalen [‘The best of both worlds’](#) eta [‘Euro Teen Generation’](#) proiektuak.

-Ablitaseko San Babil HLHIP eta Fustiñanako Santos Justo y Pastor HLHIP: Juan Peñas eta Óscar Valienteren *Detectwinning* proiektua.

-Castejón DBHI: [Aurea Garderen ‘INCLUSO ETI, EVEN’](#) proiektua.

-Garesko Seminario Padres Reparadores Ikastetxea: Mathilde Hugrelen *Twinsketches: notre monde en scène/s’* proiektua.

-Lesakako Irain HLHIP: Miren Askasibarren [‘Postcards from Europe!’](#)